

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bosgarren Urtea — Pamplona — Mayo 1970. Maiatza — Iruña — 51 gn. Zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

BESTE UDABERRIA

Maiatzaren lehen igandea. Negu beltzaren kutsu gabeko zeru urdina, bizi nahiaren begi garbiak bezela. Udaberri, mendian; ez hala nere barnean: nagikeria, aldapa, ezina.

Adiskide bertularia etorri zait atsaldean; eta nola etorri ere gizajoa! Bi makuluekin, errenka, ezkerreko belau ezurra hautsi ta burnizko lokarriz hartu ta. Harritu naiz ikustean.

Aspaldian utziak dituela, esan dit, bertsuak. Belauna

du, eta bere etorkizuna beti gogoan; emazte liraina, haurrak, ogia. Nunbaiteko laino beltzak eta bildur baten ozka bihotzean.

Bi haur eder, bi, gose gabeko mahaian haziak genituen gure ondoan; hirugarrena —txikienaren ezin egoa—, herriko haur guzien lagun eginik, jostetan. Begitan ikusten zen aitaren aurtengo udaberria eta haurtxo haiena ez zela berdina.

—oOo—

Orduan konturatu naiz zer

den udaberria. Bakoitzaren baitan egoten da askotan. Belau ezurrak hautsita bezela ikusten nuen, ezin mugituz, euskera. Abestu nahi ez duen txori kolpatua edo, ezin duena; bertsulari mutua. Bitartean, abesti berrien doinuak entzuten genituen behean; gaztetxoan jai atsalde zoragarria. Neska mutilak tirahala dantzan eta euskera garbiana mintzo. Ez zuten hotzik.

«—Zenbat gera?» —errepikatzen zuen diskoak.

Zer egin degu? Ezer ez.

Zer egiten degu? Alkar jo.


Zer egingo degu? Alkar hil...

Gaztetxoak. Gure herriaren udaberria. Ez kokiltzeko bultzada jatorra. Gure lotsa.

Gu, gaineko gelan kezka tsu, geuren onetik atera ta mindurik. Udazkeneko ostozimurren bolara. Beherean, gazteak, gure jokabide balekitez bezela: «hori ez!! ,hori ez!!», esaten dutela.

—oOo—

Ez dakit nik geroak zer irizti izango duen gutaz. Bildur naiz haur kontu bezela hartuko dituen gure gauzak. Zer dira gure arteko irizti ez ber-



BIZI

Negutik atera bezin laister lanera doa erlea: ez da aspertuko, nekeak porrokatuko badu ere. Kofinetik loretara ta loretik Kofoinera, lanerakoan arin, etxerakoan pisu; aruntz ona bilatzeko ta onuntz ona erakartzeko asmoakin.

Lorez lore erletxo goiztik arratsera dabil; arat-onat, neke ta lan, onak biltzen, erne, abil; anak eztingaiaz bete; mami goxoz bera iabil; or ari da, langilea, behar duna bil eta bil!



—oOo—

Bi txori dabiltz, lehenik kabi egiteko toki egoki bat autatzen; gero, umeetan amestuz, ohantze goxo ta guri ori maiteki egiten. Abarrak nonnai arkitzen al dituzte; baña ezaz mundik dakarzten ganerako gurigarri ta berokiak! Akitzeraño iarraitzen dute biok lan ortan, aspertu gabe.

Bi txoriak, bat eginik, aritu dira lanean, umeentzat kabitxo bat egin nairik oianean; ain egoki datorkien ostoaaren kerizpean ardi-ile, ume guri, abar batzuen gañean.

—oOo—

IBARRONDO

Gari landareak negua garaitu du ta buru aberats bat dakar udarako. Artoa lurpetik sendo dator, ta giroak lagunduz, iaun bizertsu ta urrezko ontasundun agertuko zaigu udazken aldera. agar, udare, aran... neguan utsik, baña beteak orain.

Gari, arto, zuaitz, aspertu gabe lanean, lanordua dator kienan.

Gari landare me oiek lore ugari buruan; arto beltz eta azkarrak bizer ta pikor barruan. Sagar, udare, aranak... ezin idukiz larruan, daude or zitu ugari erakartzeko asmuak.

—oOo—

Soroarentzat kalte dalako lizar orrek ere ostoz goxoa dakar, ardientzat ianari. Neguan ain arantz zorrotzeko larra, udaberrian bidelarietkin baketu dela dirudi, ziapoteak gordea bada ere. Ta ilbeltz-otsailan ain itsu ta zulotsu agertzen zitzaigun oiana, leun-leun ta apain-apain ikus dezakegu maiatzean. Dana berritzen, apaintzen, gaztetzen, aspertu gabe.

Neguaen belztasuna kendu du udaberriak; atzo ilik ginauzkenak dauzkagu gaur ain biziak; biluxik zauden astion orain apainki iauntziak; zer aldaketa atzotik gaurrera baso-mendiak!

—oOo—

Bizi den guzia, lanean udaberriekin. Ila bakarrik gelditzen da biluxik, ezer eman gabe ta ezer artu gabe; inguruan gertatzen denaz ajolik gabe.

Maiatzaren azken ontan, gauz bizien gaztetzean, asmo berri ta sendoa ar dezagun biotzean: Oiturak eta izkuntza gaztetzea gure etxean, EUSKERA BETI IBILIZ, POZIK ERE, GUTARTEAN.



Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

dinak, hainbeste zoritxar daramakien herri baten bizkar haundian? Kukuaren doinu motza itzal estuko oiha zoragarrian. Hutsa.

—oOo—

Argia, iruzkia, maiatza. Konturatu gabe, Urbasa mendian bizkar gaineraino joan zaigu ostoa. Apirilaren azkeneko hor izaten omen zen bestetan. Hori hala ba da, hiru egun galdu ditu bidean. Apezak jokatu ba-lu irabaziko zuen aurten apustua. Dena dela, ostoz berria hortxe dago haitz puntan. Gu ta gure eztabaida guziak baino zaharrago da munduan negu beltza; eta urtero antz-aldatzen da udaberrian. Guk egin behar ginukena.

Ilun nabarrean joan da nere adiskide bertsularia. Argiturik ote? Belaun ezurrari beintzat ez zion hainbeste begiratzen. Bertso batzuk ikusi nahi nizkion gai hontaz. Nik esan dezaketena hauxe da: mesede haundia egin ditela neri elkar-hizketak. **Udaberria sumatu dugu biok: ikastolen giroa, gaztetxoan euskal diskoak, bi gizonen asmo berriak ez ote dira zinezko gure udaberria?**

Elkartuz zerbait izango gera; banatuz ezer ez.

J. M. Satrustegi



ARGIA



El domingo, 5 de abril, actuó en el teatro Gayarre el grupo donostiarra de danza «Argia», dirigido por un navarro, Juan Antonio Urbelz.

Este grupo dedica todo su entusiasmo a la investigación sistemática de la danza vasca, ha estudiado a fondo el folklore navarro y montado, exclusivamente con sus temas, un espectáculo en el que se pretende dar a conocer al gran público ese aspecto de nuestra cultura. Nunca hubiera creído que el ingurutzu de Iribas tuviese una tal fuerza ni el esku-dantza de Imotz una belleza plástica tan cautivadora. La actuación fue magnífica, irreprochable, y el público, puesto en pie, los aclamó en una ovación que rebosaba de entusiasmo.

NO ES BASTANTE APLAUDIR...

Los navarros aplaudimos, pero ¿qué habíamos hecho por esas danzas que nos impresionaron? Nada. Tan sólo dejarlas morir. Tuvieron que venir estos muchachos para enterarnos de la belleza de nuestras viejas costumbres como un día se nos descubrió el carnaval de Lanz y otro el de Ituren. Hace falta despertar la conciencia del pueblo. Los chamauleros se llevaron lejos gran cantidad de nuestros objetos antiguos. El olvido acabará con el resto.

SI ELLOS TUVIERAN ESTO...

Una de las cosas que llamó la atención fue el gran parecido de algunos bailes de nuestra Montaña con ciertas danzas del centro de Europa o del Cáucaso. Yo me maravillaba del enclave tan europeo del pueblo vasco. Si estas danzas hubieran nacido en cualquier lugar de Francia o los Urales, las cuidarían con parsimonia de jardinero. Si las tuviera Norteamérica las envolverían en dólares, aquí (problema seguramente de cultura), las dejamos morir mientras admiramos cualquier chabacanería «made in hippy», que a los tres años hemos de anular porque ya resulta cursi y no se estilía. Y esto me hace recordar una frase del Hamlet: «Has aban-



donado una montaña por esa hendidona colina».

EL FOLKLORE EDUCA

En el folklore expresa el pueblo su alma y no debemos cegar ese cauce expresivo. Exige una preparación física siempre sana, siempre aconsejable (baile de atletas se le ha llamado a nuestra danza) y una disciplina moral de sacrificio, de renuncia, de obediencia, de subordinación al conjunto, altamente educativa. Y no sé cómo no damos su importancia a este aspecto.

TUDELA, SAN ADRIAN Y OTROS PUEBLOS

Leo en «El Pensamiento Navarro» a Iribarren Gil que nos habla del grupo de dantas de Tudela, ese grupo ejemplar al que le vienen pequeños todos los adjetivos y que son honra de Navarra y esperanza en un futuro que se presienten, como el grupo de San Adrián que me sorprendió y conmovió, como tantos otros ejemplos admirables de esta Navarra nues-

tra de Vera a Cortes, de Viana a San Juan de Pie de Puerto que... también es Navarra. Muchachos que vienen a compensar la defeción, el abandono, la inconsciencia, a veces el papanatismo, de tantos.

GRATITUD AL GRUPO «ARGIA»

Agradezco al «Argia» su labor, tan seria, de investigación de nuestras danzas y que su ejemplo se haga fuego en nosotros.

La cultura puede caer en un defecto, quizá con raíces de orgullo y apartamiento intelectual. Damos valor a lo nuestro, desdénamos lo vivo. Preferimos leer la erudición de una guía a observar lo real; el museo etnográfico a la costumbre que vive, a la lengua que vive, al arte que vive. Y cuando hayan muerto, porque los hemos dejado morir, lamentamos su muerte, como si los quejidos fueran a resucitar el pasado cuando es eso. Pasado.

MENDAUR

(Iruñeko Eliz barrutiaren «La Verdad» izeneko aldizkaritik artua).

J. M. S.-ri

Martxoko «Principe de Viana» zenbakian idatzi duzun saillak arriturik utzi nau.

«Bosi bat sei urteko aurrak H zer dan galdetu zenionean: «Letra muttua» erantzun omen zizun. Aur orrek egi aundia erantzun zizun; erderaz letra ori muttua da-ta. Bidasoz onuntzik bizi geran euskaldun tartean mutua izan baita.

Zerorrek aitortzen duzu ori: «Ongi begiratuaz, usa da H orren auzia» diozu. Ortan zurekin nago.

...hutsa da H orren auzia, bainan gauza geihegi esan nahi ditu diozu. Egia gauza geiegi esan nai ditula, baita gauza geiegi esan-arazi ditula.

«Ikurriña bezala da» diozu. Obeki esana izango zan, «ikurriña bezala izatea nai dugu. «H-zaleak eskualde guzietara ideki nahia ikusten dute letra mutuan».

Aizu, baño letra mutu ori ikurriña bezala artzerako, berorren auzia aurretik garbitzea zez al zan bidezko ta bearrezkoa?

Arantzazun eman zitzaizkigun orren garbitasunak, an giñan asko ta asko ez giñuzten oso-oso bete. Argitasuna egin bearra zegoan, ba, Egia, osotara azaltzerako berorren garbitasunak billatu egin bear ziran. ¿Non? Antzintasunean eia Tradizioan. Bi oñarri oiek ezarri zitzaizkiolako H orri.

Antzintasuna ta Tradizio nola izan dugun argi ta garbi ezagutzeak lanak eman ditu.

H orrek batasuna sortzekotan, mintzaeran eta idazkeran zez al litzake berdin artua ta erabillia izan bear? Baiño emen letra muttua bada, Bidasoz aruntzik berriz ots-duna ¿batasuna nondik izan giñezake? Utzi dezagun au, ez luzatzeko.

H ori idaztean badere Euskal-Erri osoan izan al du iñoiz? Arantzazun baietz esan zitzaigun. Baiño garbitasun askotxo ageritu zaizkigu, gure aldean, ori gabe. ¿Noizkoak? Antziñeko zar-zarrak eta ez ain zarrak. Aietaik poleki; auetatik ugari.

Naparroan (Naparro-goian) izan al dugu orrenik? H-ren ordez K egiten zuten zenbait itzetan Erronkarin eta Saraitzun; eta ibar aietatik bera Iruñalderañ edo berago, berriz, g egiten zuten. Adibidez: au, ori, ura; kau, kori, kura. Erronkarin eta Saraitzen, orrik bera Gau, gori, gura. Baiño H-rik ez dugu izan, edo ez da ageri iñon.

Euskaltzaindiaren Goien adierazi guzia, «Euskera» aldizkingian laxter azalduko da.

INTZA'R DAMASO AN.

Euskalerriko leioa

«Ipar Euskal Erria» liburua

Arantzazuko Prailetegian bi izkuntzetako «Arantzazu» izeneko illeroko bat argitaratzen da aspaldin, baño hontaz gañera goi maillako euskal kultura-erresbista bat ere argitaratzen zan. Aldizkari hau ezdakigu zergatik baño debekatua izan da horaingoz. Horain, argitaratzeko baimena berriro lortu artean, bere suskri-torei edo arpedidunei «zerbait» bialtzegatik euskal liburu iakingarriak argitaratzen asiak dira.

Lehenbiziko liburua «Ipar Euskal Erria» dauka izena. Euskera batuan idatzia dago eta honelako euskeran Euskalerriko euskaldun seme guzietan entelagarri egiten zaiote.

Liburu gaia Frantzi aldeko Euskalerriko berria. Guk handik urbil bizi bagera ere, askotan, horren berriak gutxi dauzkagu, eta denok iakin behar dugunez, gure odol anaiak dira. Nafarratik begira gañera, guk nafarrok beste ainbesteko nafarrak ditugu mugaz beste aldean, bere nafartasun eta euskalduntasuna ongi ohar-tzen bagera, guk baño euskaldun geiago sentitzen dira, biotz-biotzean, istorian eta goguan eramaten dituztenak.

Erosi zazute liburu hau; Ehun pesetako balioa du. Eskatu zuzenbide hauetara: Santuario de Arantzazu-OÑATE (GIPUZKOA).

Bilboko Jose Luis Etxegaray jauna il zaigu

Bilboko seme zen Jose Luis Etxegaray Pagola jauna il zan berrogei tamar urte zituelarik. Gizon euskaltzale zan, errotik maitatzen zuen Euskal Erria. AMA LUR, PELOTARIA eta ALKEZAR pelikula ezaguneeen sortzailea izan zan, AMA LUR izeneko, Euskalerriko pelikula da, eta Euskalerriko kapitale, eta uri aundienetan urte pare bat badu eman zutela. Hontaz gañera Cinsa delako euskal diskoen Argiltaldariaren zuzendaria zan.

«Euskal mecenaz bat» zala Xabier Kintanak esan zuen, eta ongi esana dago. «Gizon iaio eta argia,



ELIZAREN ITZA

BATIKANOKO II BATZAR NAGUSIA

Eliza gaurko munduan

Eskola bat duzu familia, giz-egite aberatsagoko bat. Bizi bete-bete bat, eta egitekoa osoki lortzekotan, ordea, nai ta naiezkoak dira elkar ongi aditzea senar emazteak bata bestearekin kontatzea, ta semeen ezieran gurasoak arretaz elkar artzea.

Aita beti gañean egoteak semeen eratze edo formazionako ikus-kizun izugarria du, baño amaren etxeko begiratze biguñia, txikitzen batez ere, ez diteke kendu, onek ez du esan nai beste gizarteko lanbiderik aztu ez dezakela, emakume bezela.

Eziera prestu baten bidez, aurrak aunditserako, beren buruen jabe izaten ikasi bear dute eta artu bear duten bizimodua, naiz religiokoa aukeratu ta jarraitzeko trebe, ezkontzakoa baldin bada, beren zentzia jaso, oituraz eta gizamaillaz egokiena zaiena.

Ezkontzeko garaia gazteeri datorriotenean, guraso edo ordekoak gidari bezela eskeñi bear dira aholku (konseju) zuhurrak emanaz, baño deusengatik ez dituzte bortxatu bear ez ezkontzea, ez ola-koekin ezkontzea.

Ola, zar ta gazte, aiton ta illobak elkarri lagunduz ta maitatuz sortzen duten sendiagartzeko oiñarria da. Ezkontza ta familia sendotzeko alegin guztia egin bear dute, beraz, gai diren guztiak.

Estaduarentzat eginbear sakratu bat da eragitea, babestea, ta laguntzea ontan saiatzen direneei, oitura garbieeri eutsiz ta etxe barreneko giroa aisetuz. Aurrak izateko ta egoki ezitzeko gurasoen eskubidea, famili barruan, gorde bear da. Familiaren itzalik zorritarrez ez dutenak lege propiekin ta elkarte berexiekin lagundu bear dira.

Ezkontzako ta familiaro ederra jakinaraziko dute kristauak beren biziera garbiarekin, borondate oneko gizonekin batera, aldakorra betikotik berexiz.

Gizon ikasiak, sendagille, biologo ta a... korapillo franko askatu ta kontzienci asko paketu dezakete, argia emanaz neurrizko aur-egite lanbidean ta ez gutxiago apezak Jainkoaren bideak azalduz.

iakituri aundikoa», Zeruko Argia-n irakurri dugu, zala ere. Ezdugu beraren oroimenez besterik esango. Goian dagola betiko biotzez.

Durangoko euskalduntasuna

Bizkaiko «ANAITASUNA» izeneko amabosterokoan leitua:

«Durangon euskaldunak ezdabe, edo ezdogu izan, Aste Santuko liturgi elizkizunik. Bost edo sei tokian gutxienez izan dira elizkizun horrek, baina danak erdalduentzat. Durangon, kristau izateko, Aste Santuan eta urteko astegun guzietan, erdaldu izan behar da, antza».

Aipamen hau bizkaieraz izkribitua badago ere erre-ki ententitzen da. Aipamen honek badu bere mamia euskaldun guzientzat iakingarria dena. Denok dakigun bezala Durangon gertatzen dena ezta Durangon bakarrik gertatzen, ezta gutxiagorik ere, damurik, Euskalerriko uri eta erri aunitzetan pasatzen dira gertaera berdiñak. Euskaldunak izan, eta euskal elizkizunik ezin entzun.

Arraunlariak Oartzunen

Oartzungo semeek arraun egiteko zaletasuna badute eta hau erakusteko aurten trainera bat osatu dute Donostiko eta beste Kantabriko itxasoko errietan ospatzen diren estropadetan parte artzeko. Itxas bazterreko erria izango balitz gauza elitzake ain arri-garria izango, baño Oartzungo erriak itxasotik oso aparte ez bada ere, ezdu itxas tokirik bere barruan. Ondarrabitarrek arraunak poleki erabiltzen erakutsiko diete. Pentsamenduetan mugildua nago horain ia egun baten Berako edo Lesakako erriak ezluketeka beste ainbeste egin ahal izango.

IKUSLE

XENPELAR ILL DA EUN URTERA...

(I)

Guillermo Albisuk jarriak

1

Xenpelar zanan omenez zerbait astera noa izketan, bertso batzuen bitartez nola, beste eskoik ez detan. Bertsolari onena izanan izena ixilik uzte-etan. Nere denbora guztiarako geldu ninteke kezketan.

2

Bertsolariai bere aitamenak egokiena bertsoan, nik, egitea litzakeala pentsatu izan det prankotan. Naiz ez izan Xenpelar zanan antzik batere lan ontan, aldedan ainbat saiaturko naiz itza ematen det ortan.

3

Entzule danak jakin bezate jesuita bat badala, bertso zar danak billatutzea nai lukeana al bada. Azterkalari asper gaitza da, jakintsu bizkor da apala. Langillerikan baldin bada iñor langille! aita Zabala.

4

Atsedan gabe jota ke dabil utzirik ordu lasaiak, neke guztiak aztutzen dizka euskal jatorrin usaiak. Muiñetaraño miatzen ditu aurretikoen sustraiak, Jesukrixtoren dotriñ berrian erakusle dan artzaiak.

5

Etzerik etxe atea joaz erri batetik bestera, aspaldi jua zan Xenpelar baten aztarrenaren eskera, Iritxia da Jainkoak daki zenbat galde egitera. Eta azkenik bere-biziko bilduma digu atera.

6

Aurten eun urte nola diraden gure Xenpelar ill zala, oraintxen bai ez dala geio galduko bere itzala. Aren bertsoen liburua orral nai dunak kanta ditzala. On Antonio urte askoan Jainkoak gorde zaitzala...

7

Nik eskuetan artu orduko auxen da esan nuana, guri izketan ari zaigu emen orain gizaldi bat juana. Xenpelarren-tzaz baldibada iñor jakin miñikan duana, Ikusiko du bere kondaira iritxi dala gu gana.

8

Liburutegin nabaitzen gendun agertu danan utsuna, beraren gatik nola bai degun garaipen asko entzuna. Sukalde txokon orra berriro leengo abots oiartzuna, Eta Xenpelar zorionean! badezu nork erantzuna.

9

Oso gazterik egin ziñaden bertsoak moldatzen asi, artutzen zendun gai guziari ezarriaz milla grazi. Zartu baiño len, zuk bai zenduen goi saria irabazi, Jaunak deitu zizun garaian iñork ezin galerazi.

10

Ainbat gaitasun seaskatikan zuri nola zetorzkigun, zenduen senaz bide ziurrak oso ondo zekizkizun. Itz laburretan jarri zenduen orrenbeste ikaskizun, ortarakoxe ainbeste urte Jainkoak eman zizkizun.

11

Ogei eta amalautikan amabostera tartean, betiko atsedena artu zendun sasoiako ziñan, artean Zu bizi izan baldin baziña beste ainbeste urtean, Ai! zenbat azi ereingo zendun gure izkuntza maitean.

12

Baserrin jao baserrin bizi baserritarren legera, nekazaritza latzan mendean izan zendun eziera. Esan liteke «BERTSO BERRIAI» zuk emana asiera, Zure lan oiek ausnartzen orain gu, pozik aritzen gera.

13

Itaiarekin ebaki eta ote iatzi ta belar, sortan bizkarren artuta etxera larre ta soroak zear Ganaduentzat bazka ta oia karriatutzen Xenpelar zebillenian mutiko izanik egingo zun naiko negar.

14

Amar urtetan otea jotzen asia trabesarekin, bei erapetan esne askorik etzan bilduko aiekin. Negu beltzean otzak dardaraz adimen argiarekin Jardungo ziñan arantz zulatuk aaztutzen bertsoarekin.

15

Giza tankeraz nolakoa zan nai baldin ba degu jakin, or ikusten da berari bota zioten bertso batekiñ Betik gorako aldero motxa zentzu nabarmenarekiñ. Ezkerra eta eskubia nun zeramazkian bazekiñ.

16

Ezur lodiak ez zituala eta aragitan melar, soñez txiki zan jakitsu aundiak ainbeste neke ta bear! Langille batek olako sona nola egin zezaken ar? Alako gizon ospetsurikan beñere ez luke ill bear.

17

Bai Xenpelar zuk goi argi ori zendun arrigarrikoa, alegindutzen ziñan umorez gafiñezten lagun urkoa. Era berean, gogoz aintzatuz Jaungoiko egiazkoa. Zugar bai zegon doai askoren iturri dan «berezkoa».

18

Bate bildurrik gabe esan det ni gan ez dago ezpairik, orain artean ez dala agertu alako izar argirik. Ura zan bezin serio eta, ura zan bezin alairik. Ainbeste ejemplo on eman zunan pareko bertsolariak.



Iñaki Perurena Gartziaarena amairu urte

Leitza'ko herria ere, aurrera di-joa; gauz asko egiten ari dira. Le-ku askotan Leitza'ren izena arkitzen da. Lau bertso jartzea pensatu det, nere herriari.

1.º

Naparroako herri polit bat da Leitza'ko herria.

Egunero ateratzen zaigu gauzaen bat berria.

Segi ta segi, hor ari zaigu indartutzen gerria.

Herri onek daukan indarra da inbirigarria.

2.º

Euskal herriko toki guztitan dago ondo bereziya.

Fabrika eta eskolak ba dauka milla grazi.

Denbora guzian gelditu da ederki jantzia.

Herri honek apaindutzen du gure Probintzia.

3.º

Gure herriak eskudo dauka,

otsoa ta arbola

Eta zainetan berriz,

euskaldunaren odola.

Mendietan ba daukagu zura ta marmola,

aurrera dijoan artian etzaigu guri ajola.

4.º

Tantai arkitzen da,

hemengo gaztedie.

Inguruko auzoak ere,

ondo badakie.

Bere burua goratzea,

ez da gauza egokie,

Aitzkoran ere txapeldunak,

hemendik atea die.

5.º

Tantai arkitzen da,

hemengo gaztedie.

Inguruko auzoak ere,

ondo badakie.

Bere burua goratzea,


ez da gauza egokie,

Aitzkoran ere txapeldunak,

hemendik atea die.

Se autoriza la copia para la investigación.

© GOBIERNO DE NAVARRA



1969 URTIAN, DAGONILLAREN AMAZAZPIAN, ORIO'N ESTROPAK

Jun zan urte guztian, egun oni begira, ta etorri dira gauzak egoki eta arira. Urbildu ziran jendiak bere poz eta argira; berak dituzten ona, gozo eta eztria.

Zabaldu zuten zeatz irrati-izparringiak izango ziran danen jakingarri guztiak. ORIO txokuak zitun danon begik josiak eta biotzak ere ederki itsatsiak.

Bagendun bezperakoz galanta guk bildurra denbora txarrarena. ¡Ai, au balitz gezurra! Bagenekigun ongi etzala izango elurra, baña bota zezakien euritan milla ura.

Igande goiza, argia. Egualdia, oso ederra. Itsaso aldetik aize neurritz eta iparra. Aguztua izanagatik, ez bero ta ez zakarra. ¡Au dek, au dek girua, berezi eta biarra!

Etorri zan, biatarri erraztuna bezela. Argia egiteko jez da olko kandela! Jendiaren sasoi ez da izan motela. Gero re izango dira egun aundik orrela.

Karriketan uraxe gendien betekada; irrintzi, oiua, soñu. ¡Gora gaurko estropada! Beñe bañon obia otorduz asekada, eta leku batzuetan, bixigu-txuletada.

¡Zeñen berdiñ erria ori oriz jantzia! Ertzeko zorian zarra eta gaztia. Ideki dio ORIO'k erbestiari atia emanaz munduari besarkada maitia.

Ordua etorri zanian, danak beren tokietan, exeririkan ainbat atsegiñ alkietan. ¡Ura bikaiñtasuna; ura zan munduetan; Ez du ikusi ORIO'k iñoz bere egunetan.

Arraunlari onenak emen ziran bilduak, aleman, sueko, inglesa, franzes, Bañolas kuak. Olanda ta Sebilla, emen Orio'kuak. Urrun entzungo ziran txalo bero ta oiua.

Kanpin zoragarriko atzerritar guztiak, emengo giro onian daude gozoki asiak. Eramango dituzte berekiñ agiriak: Oroimen sendo, bero, naitasunez betiak.

JOAQUIN ALDAVE

ARTZAI-DEARI BERTSOAK

Zurgineko Mikelak jarriak

1

Artzai-deia degu goersten zuzen gaituelako zaitzen: erritik urrun bagoaz ere berak ez gaitu aztutzen. Nola jai ala aste egunez pozik degu irakurtzen: gora ta bera esku artean ibiltzen, ez gera aspertzen.

2

Azkeneraño irixtean ikasiko dezu laister: gure erriko neskatx gazteak zer modutan diran jaitzen, Orañ arte gure aitt-onak ondo bait-digu esaten; jira ta buelta ez dira nunbait eskandalotik irtetzen...

3

Aldamenean ere diot leitu dezaten ematen; gure erriko pediorikuak ez du gezurrik esaten! Lenengo orrietan ditu konseju onak ematen, Ebanjelio santua nola bete, digu erakusten.

4

Gure animaren potentziak esnatzen saya gaitezen, Jainkoak emandako doaiak ez dira alperrik galtzen. Fedeak erakusten digu Jainkoarenak izaten; gure itz eta pentsamentuak Berorengana jasotzen.

5

Askotan da gure burua Fedeen aurka joaten; gure goi-bizitza santuekin ez gera ondo jokutzen. Ikasi dezagun ziñetan gure burua makurtzen, misterio santu onen bidez Jainkoa zaigu agertzen.

6

Siñismenak gaitu guziok Jainkogana eramaten: Bere borondate santu ura ikusten saya gaitezen. Baña askotan gurea bai-ta Berearen aurka jartzen, au desegiten joka bearrak miñ aundia du ematen.

7

Gure animaren zauriak ez dira berez sendatzen, Ebanjelio santuan degu erremedio arkitzen. Arretaz lan egin dezagun pobre bai-gera gertatzen bide txarrei uko egiñez, zuzen danari jarraitzen.

8

Garizuman esan oi degu erruki, Jauna, erruki: mundu ontan gabiltzan guziok obena degu ausarki. Jesusengana biur gaitezen, au da denbora egoki; pekatua betiko utziaz biziko gera santuki.

(«Artzai Deia» aldizkaritik artuak).

BITORIANA GEREZTA YEREGI

jaio zan iltzeko.

Il zan KRISTOrekin piztutzeko 1970'ko Pizkunde igandean 57 urtekin (oietatik 23 Aralarko Aingeruaren zerbitzuan)

ZERUAN BEGO.

Bere Familiak eta San Migelgo guziak biotzetik eskerrak damazkizute

OROI eta OTOI



Or goian Aralarko Aingeruaren Elizan ainbeste urte zerbitzari izan zenaren il-oroigarriaren aurre ta atzekaldea. Naparra eta gainerako Euskalerriko euskaldunei, gure aldizkariaren irakurleei bere arimaren alde otoi bero bat eskatzen diegu.

IKASI, MIKASI...

SEIGARREN ETAZ...
BEARKO DETASI

SEIGARREN ETAZ... BEARKO DETASI

Nere idazkaintxo sail luze ontan, Seigarren Agindura eldu naiz.

Egi esateko, bildur ematen dit, txiki ta aundi batera, mintzo egitera. Baño, eguneroko, asteroko eta illeroko guztiak; zine, radio ta telebisioak, maitakeri ta musikeri inguruan dabiitzen eskero, ¿nola ni ixilik egon?

Prestatu bearko ditut, bada, bost edo sei idazkaintxo gai ontaz. Gaurkoan:

A) MAITETASUN EGIZKOA, munduen atsegiña ta ondorengo iturria da.

B) SASI-MAITETASUNA, edo Maitekeria, gorputz eta animen kaltegarri izaten da.

a) ¿Zer izango litzake munduaz, beti negu balitz, zugaitz ostu bat ikusi gabe, lore bat ikusi gabe, txorien txio bat aditu gabe? ¿Zer izango litzake munduaz, senar-emazte maitetasun gabe, senargaien maitetasun gabe, aurren eta aitaman maitetasun gabe, lagunen maitetasun gabe...? ¿Obe litzake ez bizitzera ere!

Eskerrak Jainkoari, beste aldera egin zuela mundua, ta guri ere beste aldera egin ginduzelako. Jainkoa, guztien AITA delarik, guztien BIZIAZ begitzen duen bezala, Bostgarren Aginduan EZ INOR ILTZEA aginduz, ala ere. BIZIAN ITURRIAZ zaitzen du, Seigarren Aginduan EZ ARAGIKERIK EGITEA beartzen digunean.

Aita guztiz altzu, zeru-lurren, ageri diran eta ez diran guztien Egi-leak, eman zien senar-emazteai ondorengoi BIZIA emateko almena.

Piztiak, egaztiak eta abereak ere, ba-dute almen ori, baño ezagerarik ez dutelako, egin, egiten eta egingo dute ¡nai ta naiez! Jainkoen NAIA.

Gizonak berriz, libertadeaz ornitua dagoiarik, egin iezake — ta egiten du maizeki — bear ez duen bezala. Urregatik jainkoak jarri zigun Agindua au; EZ ARAGI GÖZAKERIK AHITZA, eskontzan ez baha.

Bostgarren Agindua austen duenak, bere anaian ODOLA ixuritzen du. Seigarren Agindua austen duenak, lizunkeri billa ibilliaz, kalte egiten du bere BURUARI ETA BERE ONDURENGOARI.

ta, kontun iduki bear degu, ez dela bakarrik pekatu agirin egiten dana, baita biotzean sorrizen dena, ere. Ara, zer dion Jesukristok:

«biotzetik dator asmo txarrak, gizon-iltze, eskontzak-naaste, lapurreta, gezur-aitor eta birakoak. Oiek zikintzen dute gizona». (Mat. XV. 18).

Iriki dezagun berriz Ebanjelio Santua, ta ikusiko degu noia ezkontzarako bakarrik jarri zituela Jainkoak aragin indar eta gozakeri guztiak, eta nola ezkontza ¡bat batekin eta betekoa dela!

«Pariseu batzuk ere ondora zitzaizkion, azpikeriz galdeka, zillegi al zitzaion gizonari emaztea zapuiztea. —«Baña, ¿zer agindu zizuten Moisek?» erantzun zien. Eta aiek: —«¿Moisek? Zapuiz— agiria idatzi ta etxetik bialtzea. «Orduan Jesusek: —«Zuen biotz gogorragatik baiezta zizuten Moisek agindu ori, bako asieran etzan ola. Beraz, emaztea zapuizten eta beste batekin ezkontzen danak, berearekin ezkontza austen du». (Mark. X. 2-9).

—¿Litzake ope izan —esango du norbaitek—, ezkonduak aspertzen diren, beste batekin ezkontzea?

—Senar-emazteak eta semeak —diotet nik—, elkarren laguntza bear dute bizitza guztirako.

—¿Nola konpontzen dira, bada, abereak?

—Abereak, bein azi ezker, BEHEZ, isuntzoaz, ikasten dute ikasi al dezaketenguztia. Ez dute eskolarik, aiuntamentuik, ministeriorik... Ez dute onerakoen, sonerakoen, diruen eta jabetasunen konturik. Bein umeak azi ezker, eginda daukate beren egin-bearra.

Baño gizona, jaiotzetiko, pamilikoa ta gizartetikoa (social) da...

b) ¿Egi al da, mundua maitakeriz, lizunkeriz, josita dagoala? ¿Egi al da lenago etzela orain ainbeste lotsagabekerik?

Bai, eta ez. Aldiz aldi, leku batzuetan izandu zen orain baño lizunkeri geiago. Ala diagute Ninibe, Babilonia, Sodoma, Pentapolis, Erroma, Paris, Biema eta ziuade aundiko istoriak. Baño erri oiek, putzu ustelduak bezala ziren garaian, beste leku geienetan, gizonak eta emakumeak garbitasunean bizitzen ziren.

¿Gaur? Gaur ez da leku batzarrekorik. Mundun azkenien sortzen dien moda, lasaitasun eta lizunkeria, paratzen da, ber-bertan, radioz ta telebisioaz, ziuade, erri ta basetxe guztietaraño. Ikusi dezagun, Euskal Errin, ainbeste mille urtez garbitasunean bizi den erri ontan, gertatu dena:

1.—Lenago, maizala gorritzen zuen nexkatxeri, gaizki begitzen zaien; orain, maizalek, ezpanek, azazkalak eta betazalak pintatzen dituzte geienak.

2.—Lenago, nexkatoak luze jantzi nai zuten len bait-len, amaren pozaz; orain, amak eta alabak leyaka dabiliz, zein motzago jantzi.

3.—Lenago, ezkontza izpatu arte, senar-gaiek etziren eikarren etxean sartzen; orain, lenabiziko egunetik asten dire «iketana», eta bigarrenetik kiriketana.

4.—Lenago, gazteak, pañuloai punta banatik elduta, dantzaten zuten; orain, gazteak eta zarrak, gerritik eta lepotik ongi elduta...

5.—Lenago, gure sukaldietan pamilu guztia solatzen zen kontu-kontari, aitaman konsejuak aditzen, Erosario santua errezatzen; orain, umiak eta denak, telebisioari begira, «Ballet», «Patinaje artistico», «Concurso de natación», dantza ta edozein «programa», naiz Bi ronboakin bada ere...

6.—Lenago, gure etxietan etzen ikusten santuen estampa besterik; orain, anuzioan aitzakiz, neska zatarrenak eta dena...

7.—Lenago, ezkontza jokuan, geienean biñepin, garbi jokatu bear zen; orain, ez da karta txarrik, senargaia arrapatu eskero...

—oOo—

¿Zertako segi? Mundua lizunkeriz josita dagoala, ez da ukatu dezanenik.

¿Zer ikusten da nonai? ¡Besarkaka, musuka, neskatxek eta emakume ezkonduak ere, iru urteko nexkatoen soñekoakin...! Gaur zainera, biar dantzara... Amasei urtetik ogeita zazpi arte, ezkongaietan. ¡Zeinbat lapurreta olako ibillerak ordaintzeko! ¡Zeinbat gazte ospitaletan, gaitz zakarren atzaparretan...!

Ta, Jainkoan legea, ¿norenako da? ¿Edo munduan legea baliozkoa ote da?

«PRINCIPE DE VIANA»-n kristau zintzoak: aditu ongi eta biotzean gorde San Paulo Apostoluaren itz zorrotz auek:


«KRISTOREN ERREINUAN EZ DUTE ARTUKIZUNIK IZANGO, EZ ARAGIZALEAK, EZTA LIZUNAK ERE». (Efesokoai. V-5).

A. ASTIZ ARREGI

URTAIN EUROPAKO TXAPELDUN

Urtain gure boseolari euskalduna Europa'ko Txapeldun. Zorionak. Joan den Apirilaren 3'an Madrilleko «Palacio de los deportes» deitutako lekuan arizanak dira, Weiland alemana Europa'ko boseolarien txapelduna eta gure Urtain. Telebistaren bidez España guziak eta bai Europa ta Amerika'ko yendeak ere ikusi dute borrokaldi hau eta Urtain'en garaipena. Ogeitabortzgarren borrokaldia eta ogeitabortzgarren gizona ankaz-gora botatzen duena. Orai arte ezta izan munduan Urtain'en marka egin duenik, urte terdi bosean hasia ta Europa'ko Txapeldun. Arrigarria.

Borrokaldi atakatu izandu zen, Weiland alemana boseolari bizkorra 105 kiloko gizon aundia, Jose Manuelek baño 17 kilo gehiago, luzeago eta bosean ere gehiago dakiena, ezker bildurgarria ezkerria izanik eta ainbertze gizon lurrera bota dituen. Mutiko kokkor bat ematen zuen Urtain'ek alemanaren ondoan, bainan halare gure Jose Manuel'ek han erakutsi zuen bere ukumilen indar ikaragarria, bere zaulitasuna eta kuraia eta bai bere yakitatea ere. Weiland alemana 105 kiloko gizon puska lau aldiz bota zuen lurrera, lenbizikoan, bigarrenan, irugarrenean eta azkenik laugarrenean KO utzirik. Bostgarrenean eta seigarrenean Urtain aunitz nekatu zen eta bai larri larri ibili ere. Weiland'ek gibelean jo zion kolpe ikaragarriak min eman bazion, eta hura hartuta zutik irauin zuelarik ezta beratza gure gizona, aski zalla ta bizkorra baizik. Bertze edozeñek etzuen irauinen bainan bai gure Urtain'ek. Gero zazpigarrenean berriz indar-berriturik hasi




zitzaikun eta orduan bere kontrarioa bi zartakoz bota zuen lurrera KO utzirik. Urtain Txapeldun.

Urtain bosean hasi zelarik iñork etzuen sinetsiko bi urte baño lehen Europa'ko boseolarien Buru izanen zela bainan hor dago egia, ogeita bortz gizon ankaz-gora bota

ta ondoan Urtain Europa'ko hoberena ta Txapeldun. Orai gure gizonak behar luke bere burua ongi zaindu eta gehiago ikasi. Aurrera Jose Manuel, goazen munduko Txapelaren billa.

ANZANARRI

PILOTARIAK



Joan den Apirilaren 26'ean Gazteiz'ko frontoian ari izanak dira Lajos ultzamarra eta Bergara etxalartarra, bi pilotari naparrak buruzburu. Partida hau España ko esku-huskako pilota Txapelketakoa zen eta arrakasta aundia izan du. Frontoia leporaño bete zen eta yendeak bazuen partida hau ikusteko gogoa, bi pilotariak sasoin ederrean arkitzen direlako eta biek berdintsu,

trabesak ere bi aldetara berdín, han ez zen irabaztale segurorik.


Bergara paxa gorriarekin eta Lajos urdinarekin eta partidari asiera eman zioten.

Lenbiziko tantoa Lajos'entzat, bainan Bergara'k berehala berdindu 1-1. Gero ultzamarra iru tanto eginen ditu. 4-1 eta trabesak 100-70 ri bere alde. Bi pilotariak gogor ari dira eta bortzgarren pundoan berriz berdín 5-5. Trabesak etxalartarren alde ehun duro uyu egiten dutela. Bergara'k bertze bi tanto eginen ditu eta aintzinaldia harturik partida bere alde 7-5 eta trabesak ere bai 100-80 ri. Bañan Lajos indarrean dago eta berehala berdindu ta bi pundu gehiago eginek partida 9-7 urdinaren alde. Trabesak izulikatatu dira eta orduan diru auserki ultzamarren alde 200-90 ri.

Gero Bergara'k tanto bat gehiago 8-9 bainan ondolik ultzamarra bortz tanto lerro lerro eginek bere gaintasuna agertzen du, etxalartarra bere mendean dago. 14-8. Lajos sasoin izigarrian dago, pilota beti zazpian eta zortzi terdian dauka indar ikaragarria erakusten duela eta partida airez aire irabazten du. 22-11. Lajos ultzamarra sasoin izigarrian dago, denak arritu ditu eta bere aldekoak

haren baitan uste osoa dute. Orai ari beharra da Tapiaren kontra eta partida honen irabaztalea Reteji Txapeldunaren aurka Txapelketako Azken-Partidan. Bolai hontan Nafaratar pilotariak indarrean daude eta denen gañetik agertzen zaizkigu. Ikusiko ahal ditugu Lajos ta Reteji Azken-Partidan? Eta nor Txapeldun? Hori geroak erranen.

M. IZETA



ERRIZ - ERRI



LEITZA

1970 ko apirilak 26. Leitzarrak esanenez esatera zaarra: Leitze aundi Iruñen pare, alaxekoa baitzan Aretuan (Cine) euskal giroa.

Zortzi Bertsolarik eman zioten txapelketari asiera; urrengo saioa maiatzaren 3-an Bergaran izango dute, eta azkena Gernikan maiatzaren 10-ean JAI-ALAI pelota lekuan. Sariketa au bikoteena da, pronbitzi bakoitzeko bi bertsolariren puntuak geituz egingo dana.

Auek ziran bertsolariak eta eman zituzten puntuak: Gipuzkoa. LAZKANO

eta GORROTXATEGI Bizkaia. AZPILLAGA	578 puntu
eta EMBEITA Nafarroa. AROZAMENA	546 »
eta MADARIAGA Lapurdi. MATTIN	532 »
eta TXAMPUN	523 »

Araba eta Zuberotik etziran azaldu, auek falta ziran pesta osoa

izateko. Zoragarria izago baitzan senide danok Leitzen biltzea.

Geienik txalotutako bertsoa MATIENENA «basolari» gaiarekin.

Eskolan ez naizela ibili ta dudala nere kaltea igualtsu zuen itxirik ere bere eskolako atea Nik naiago dut mendia eta kaletik apartea Biba mendiko euskera eta mendiko libertatea.

Ikusi zanez, leitzarrek askatasun egarria azaldu genuen.

Ernardorena Jaunak; eskatuta; Naparroko Diputazioa eskertzeko bota zituztenetako bi bertso:

Diputazio batek parte artuta Euskera jasotzeko indarra sortuta emen gabiltza bera ezin eskertuta oaindik zerbait in leike danok alkartuta. lakañak gaude Diputazio agurgarri bat badela laguntza eskatzen zaion garaian arluzatzen du berela Baña pentsatu beste iru anai alde ontan ba gaudela gogoan izan napa maiteak gure anai zeratela.

Bertsolaririk onena LAZKANO izan, zan saio ontan 295 puntukin, urrena AROZAMENA 291 puntukin. Gai-emaile Ernardorena Jauna,

naiz berak urte batzuk izan, garbi ikusi genun gogoa gazte daukala, aintxen garbia baitzan bere izketako joskera eta antolatu zun giroa; ezin bukatu nezake bere lan aldia eskertu gabe. Baita Epaimaiekoak ere beren eginkizuna garrantzizkoa baita, eta nola eskertu bertsolariak? Nigan ez daukat itzarik, auxe bai Euskal-itturriak zeraten ezkeren zuen uratik edango dut.

LEN-ITZ



ARAITZ

Uztegi ta Intze-ko erreka zulo-tan kukua asi berria degu, «kuku» ta «kuku» kantari... ta aspaldi ontan muturik egondako beste oni zeozer Araitz-ko berri (etena za-baldu) emateko gogoa piztu zaio...

Badirudi negua, noizpait, amaitua dala aurtengoz. Luze joan da, ta zital xamarra. Udazken luze-gozaoren ordañak izan ditugu. Ta udaberriko zati ederra, egoaldi otz eta euritsuz ongi ornitua pasa bearren izan gera araitzarrok. Ta, jakina, mallo-malkorretan eta Aralar-mendian elurte dexenteak eta iraute luzekoak. Motellek; ezkut negu ontan giro izan noski San Migel, Guardetxe ta Igaratzako kaxko goitu aietan!!!

Orain, berriz, kuku-kantekin batera, artzaiek, ere trasteak bilduta, asiak dira poliki-poliki beren artaldekin Aundi-mendi aldera ta aurki Aralar mendi aldera larre gozo aietan udara ongi pasatzeko uste osoz eta itxaropenez.

Bejondaiela gure Araitz ontako artzai jatorrei.

—oOo—

Larri ta estu naiko ibiliak izan gera Intze-ko errian jun dan otsail-martxoko sasoi ortan. Lau borda eder, iñoiz pamili-etxeak izanak, erre ta kixkaliak izan baitira, gaulanezko jokabide makurrean.

Eskerrak, gaizkillea arkitua izan dala ta orain auziaren etena erabaki arte, giltzapean nolabait bere errua zuritzen ari dala.

—oOo—

Alkate berria ere badegu Araitz-en. Zenbait urtetako bere txanda osaturik, Askarate-ko «Mokoroa»-ko nausi Erramun-ek, agintea pasa berria dio Gaintze-ko Juan, «Otsell-zarraga»-ko nausiari. Izango du onek, naski, zertan saiatu ta alegindu, araitzarrok nai bezela, Araitz-era electrica-indarra bear dan neurritz eta segurantziz eldu araziz, olako zorianik ezagutzekoak baldin bagera.

Izan ere, exkax gabiltz electricaz Araitz-en aspaldi ontan. Oso exkax! Udaran, agortea dalako... ta beste askotan, zergatik garbi jakin ezta... Goierriko lau errieri ukaldi ta mozketak latzak egiten dieztelako, oso exkax gera Araitz-en argi-electricaz. Ta gaurko egunean, jaunak, ezin gure etxeetan nunnaikoetan diran aurrera-bideak prestatu, bear-bearrerko elektrika-indarra izan ezik.

Ekin bada ballarako agintariak... ia eldu den udarako, Araitz-en argi-kontuak aurrera bide egokitik egiten asiak diran... Nik baietz esango nuke... Gogoa ta bearra eztira palta beintzat!!!

—oOo—

Bero-bero emen dabilz Askaratearrak ango eliz ederra barren-dik edertzen eta txukuntzen... Diotenez, izugarri dotore geldituko omen da, ta aurtengo Sanpermiñetarako-edo, lan guziak egiñak izango ote dituen entzun degu... Gora Askarate... ta gora askaratear pizkorrak...

MALLO-PEKO KUKUA

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA



IRAUN BEZATE GURE DANTZAK



Salbatoretik asi ta, ude ta urri osoa sarten ditugu gure ZAIN-DARI SAINDUK gorensten. Urtearen erdie nolana.

Gure erriko Zaindarien gu oroitzea ta berari danontzat laguntze eskatzea, gauz ederra. Ortarako dugu zaindari; berak gu zerutik laguntzeko; guk berari laguntz auz eskatzeko; erdietsi dazkigun mesedetzak guk eskerrak emateko.

Errikoez, batzuek bertekin elkartzuz, ordu atsegingarriek pozik pasatzeko ere bai.

Zaindariaren inguru, bere egalpean, aurrideago gaitzeko errikoak. Gauden egunetan, kezka franco dabil yendeen artean: bizimodu gero ta zallago doayela iduri du: bakoitxok gerenean bakarrik pentsatuz gabiltzela erran daiteke: elkarrekin goxoki egoteko astirik gabe bizi gara urte osoan.

Ortiz, gure erriko Zaindaria maitea goretsi bidenabar, etxe bakoitxetakoak, alde batera ta bertzera edatutakoak, mai bateratzen gara egun oyetan, kezka guziez baztertuz, bare-bare, lasai-lasai gure solasak elkarrekin ibiltzeko.

Egunaren ordu guziek ez ditezke, mayen yarrita, yan ta edanean pasa; egia. Bizi denak ta on denak, batez ere gazteak, ibili bear du. Erriko bestek berek ere ibiltzeko gogo au aunditzen dute. Egundayen yan bertzetakoa baño indartsuagoa izeten delako, saltoka ta puzterka badere beiti bulketu bear.

Baditeke emendik eldu diren gure aspaldiko dantza ederreak; sabela ongi beteakin ere egin daizken dantza gozoak; ta yan-edamen urin ta pozoin kaltegarriek gorputzetik botatzeko balio duten dantza bixi-bixi zauliek.

Zut eta tente, urdalla geyegi bortxatu gabe, erreposki ibiltzen dire gure bestetan «mutildantzariak» denen pozgarri plazaren inguru; naiz tarteka beren zaulitasune, bixitasune ta gerrontzeen biguintasune denei ager, soñuek ala eskatzekin.

Jotak, fandangoak, porrusaldak, sokadantzak berriz izerdi au-serki dakarte, gorputze onduz ta yan-edanen kalteak aizketuz.

Baztandar ok: gure aitzinekoek emaneko oiture on ok, iltzera ez utzi Yinkoaz, Gorputz-animarentzat osasungarri direla dantz ok, iñork ez dezake uke, nik uste.

BEÑATEK

(Baztango «Elkartasuna» errebistatik ekarria).



ULTZAMA



ULTZAMA'ko «SIMPOSIUM» delakoaren berriak

Gure Euskaltzaindiak (Euskal Akademia), denok dakigun bezala, aurtan Ultzamako Ballean, EUSKERA, KATALAN ETA GALLEGOAren alde «zerbait» on eta onuragarri egiteko Katalunia ta Galiziako Akademiekin batera «SYMPOSIUM» delako bat antolatu du. Hona hemen Euskaltzaindiak «SYMPOSIUM» honi buruz eman dizkigun berriak: «Naparro zaharrean, Ultzama aldean ospatutako dugu Billera Nagusia, SYMPOSIUM izenekoa. Idazlariak (Sekretarioa), Bartzelonako

dala Udara edo Udazkenerako.

SYMPOSIUM horretan kontu hauek aztertuko dira:

1'goa.: Gure arteko izkuntzen egoera. Izkuntza bakoitzaren azterketa, izkuntza beraren ordezkariak (delegadua) egingo du.

2'gna.: Gure Izkuntzak (EUSKERA, KATALANA ta GALLEGOA) Irakaskintzaren eta Zabalkundearen barnean.

3'gna.: Gure izkuntzak gaur legearen aurrean.

4'gna.: Españian ELEBITZA (BILINGUIMO)ren alde egin diran alegiñak.

5'gna.: Europa barruan Elebitzaren alde artu izan diran negurriak.

6'gna.: Munduko Elkargo Nagusiak Guraso-izkuntzen alde atara dituzten agiri eta alegiñak (ONU, GIZONEN ESKUBIDE AGIRIA, UNESCO, BATIKANO, eta, eta).

Garrantzi aundikoak dira benetan «SYMPOSIUM» hontan aztertu behar diran gai guziak.

Horaindik badugu denborik guzuz komeni diran bezala egiteko, sei illabetera gutxi gorabera baigauda. SYMPOSIUM honen asieratik. Esperano gera gure euskararen onerako izango dela.

SYMPOSIUM hau «Principe de Viana» Elkargoaren laguntzarekin egingo da».



«ERRI IZKUNTZEN BERRI EMATE, AGIRIKETA TA BATERATZERAKO» Elkargoan, Frederic Roda jaunarekin Santamaria jauna itzegiña dala, esan zuen. Handik jakin dugu Billera Nagusi hori atzeratua izan

ESPAÑA - EUROPA - EUSKAL ERRIA

España'ko Gobernu berriak bere ibilbidea agertu nai izan digunean, zera esan digu: sartaidekoak geran ezkeren, Europa'kin alkatzera luzatu bearko ditugu pausoak.

«L'Express» prantzes aldizkariari egiñiko deklarazioetan, onela mintzatu zan Lopez Rodo: iritxi zaio azkena España'ren bakardadeko autarkiarri eta «prest dagu supranazionalki alkartzeko bideak moztera». Ez dugu goiz jeiki bearrik, itz auek Europa'ri begira esanak dirala oartzeko.

1962ko otsailaren bederatzian eman zitzaion asiera politika oni España'ren aldetik, ortarako artuemanetara iriki zanean. Artueman auek, leen aldi batean, komertziorako itun batera irixteko elburua dute; izan ere, bere ekonomi-politika egiturak diralata, Grezia'k duanaren antzeko alkatze batera irixteko gai ez da oraindik.

Euskaldun europazale geranez, pozik ikusten ditugu España'k sofitzen duen itxurari atek irikitzeko alegin guziak. Izan ere, aspaldi-aspalditik, bakardadeko bide estu eta itxian ibilli da España, al-aiakit nik zenbat gertakizunek eraginda. Moroekin burrukan asi zanetik, Europa'ko aideetatik aparte ibilli da; Europa'ko aide berri-zalle, aurreratzalle eta mesegarriengandik aparte ibilli ere.

Badira, oraindik, erronka juaz, España kapitalismo bide orietan abiatzeko gai ez dala diotenak. Iritzi au, ordea, ez da batera aurrerakoia; ortik joanean, atzerapena eta bertan bera amiltzea lortuko litzake gaur egun.

Egizale zuurrak bear dugu izan. Europa'kin alkatzeak, sustraiko eraberritzeak eskatzen ditu. Gure azterketan pixkat saiatzea aski da premi latzak ikusteko: erakundeetan, ekonomi-politika eginturetan eta zer esanik ez kulturatan. Bide ontatik abiatzeak, buru-biotzak beste malla baten ipintzea eskatzen du: gizonaren askatasuna legezko estadian babestuz, indarraren aurretik ipiñiaz alkarizketa, danekioa bakar batena baño lenago ezagutuaz, erriak diona errezpetatuaz, eta denak berdin artuak ditzen aleginduz.

Iñoz gutxi batzuk besterik ez dira, aurrerabide au moztu nai dutenak. Baina ekonomi egiturak berritu bear ditugun era berean, politika bideak ere, garbiki eta egiki, berritu bearko ditugu europarrerekin alkatzekotan. Osterantzean, alperrik lirake alkatzeko asmo guziak.

Illunaldiak illunaldi, eragozpenak eragozpen, Europa'ko Errien bideratzea argitzen ari da batasun izarraren argibidean. Frantzia'ko eskualde edo regionen berpiztea De Gaulle'n erruz illundu zan; eskualde berritzea senadoaren aukerarekin naastu bai-zuan. Baina badator berritze au; erdiko ezkertiarrek batez ere, ori iritxi arteko onik ez dute.

Eta España'k ere gaurko gertakizunak eskatzen duten jatorrasun eta egizaletasunakin jokatzan badu, bide berdiñetik jo bearko du. Zenitismoa deritzaion pizti itsusi orren azkena ba datorrela uste dugu. Gure erriaren antziñako gogoen aribide berean dotoz gauzak. Beti izan baitu gure erriak defentsarako ausardia. Eldu da bai ordua, regionen nortasuna ezagutzeko ordua eta euren dagozkien egitura egokiak sortzeko uea: naiz ekonomian eta administrazioan, naiz politikan eta kulturatan.

Beren izaera ala dalako, beti izan da Euskal Erria oso egokia bere buru-jabetasuna gordetzen eta beste erriei laguntza eta lan-kidetasuna ematen. Baina beste erriak ez bezela, gureak beti alkatu izan ditu bi alderdi oiek. Bata bestean oinarritzen bai-dira. Bi alderdiak zatitzeko arriskuan arkitu danean, bere izaeraren azkena ikusi du.

Frantzia'ko eta Amerika'ko erreboluzioen aurretik zebilen gure Erria ain aurretik ibilli ere askatasunak berekin dituen demokrazi eta berdintasun bideetan. Bere erroietan daramaki egarri au Euskal Erriak. «Cuadernos para el diálogo»-k dion bezela «elkarrekiko demokrazi jatorraren defentsalleetatik aurrenetakoa dalako munduan». Orregaitik uste dugu, zer esana ba-duela Euskal Erriak gure European.

"H" dala eta ez dala...

!!!EUSKERAREN ETSIAK, GURE BIZKARRETIK PARREZ...!!!

Gernika'ko bertsolariari saioketa izandu da, euskaldunak izan lezateken argibiderik egokiena, euskeraren batasuna bear-bearrezkoa dela ikusteko.

Bertan azaltzen ziran bost gizonetatik ¡¡LAUEK!! euskera desberdiña zerabilkiten.

Izkuntza batek izan lezaken anarkirik aundiena sofitzen du eskuarak. Ez bakarrik probintzi batetik bestera, edozein Gipuzkoa'ko erri batetik bestera, euskera desberdiña mintzatzen da.

Batetik bestera aii urbil egon arren, ez Ondarrabin ez Errenderin, ez Donostian eta Tolosan, ainbat gutxiago Bergaran eta Azpeitin... ez da euskera bera egiten.

Orrelako anarkia ikusirik, euskaldun denak, batasunaren bearra aitortzen eta eskatzen dute.

Ixkamillak sortzen dira, batasun orren billa asten geranean, batez ere zorioneko «H» ori dala eta ez dala.

Eta ¡¡NOLAKO IXKAMILLAK...!!!

Euskalzaindiko Lendakari dan D. Manuel Lekuonak egin duan deskarguan, «H» orrek «asarrea eta gorrotoa: Oñaz eta Ganboa», sortu dituala esaten digu.

«...Azken urte oietan, ez zan izkuntzaren inguruan orrelako burruka gogorrik sortu», esaten du Arenaza Josu jaunak, Z. Argian.

«...Ez sasi-letradueiri», oiukatzen du Juan San Martin'ek «Principe de Viana» aldizkarian.

Ezin sinetsia eta bide batez naigabea sortzen digute orrelako ixkamillak.

Alde batetik, euskaldunak giza-lege gutxiko gizonak gerala erakusten digutelako.

Iritzi-neurketa bat gizonki eramaten ez dakigulako.

Eta bestetik, ixkamilla oiek euskaldunak zentsugabeak gerala azaltzen dutelako, zeren euskera iltzen ari zaigun une oietan, euskeraren ¡¡azken ats!! oietan, utsgabekeri batekin denbora galten degulako.

¡¡Salba dezagun, arren da arren, salba dezagun lehenik gure izkuntza, eta gero antolatuko ditugu, bigarren mallako diran, beste arazo denak...!!!

¡¡Atera dezagun lehenik putzutik itotzen ari dena... eta gero ikusiko degu nola apaindu...!!!

¡¡EUSKERA IZKUNTZA IL BAT DA...!!!

Ikus dezagun euskeraren egoera larria.

Begira Xabier Gereño'k «Anaitasuna» aldizkarian, egun oietako batian esaten diguna:

BILBO'ko «Escuela de idiomas».

Asi dira izkuntzak irakasten. Batzuek, ea euskera irakatsiko ote daben galdetu deutsee.

Euskera izkuntza ¡¡IL BAT!! (letra aundiak gureak dira) dala erantzun dabe, eta eurak izkuntza biziak bakarrik irakasten dituela.

Erantzun negargarria, benetan, Bilbo'ko «Escuela de idiomas'ek» eman duana.

Euskalduneri zerbeit PENTSARAZI bear ligukena.

Beste lekukotasun bat: Ona Larresoro jaunak Z. Argian esaten diguna «GAUR» etxiak edo batasunak egin duan txostenaren ondotik: «...euskera IA HILDAKOTZAT jo diteke GAUR haurren artean, bai Nafarroan, bai Bizkaian eta bai Araban.

...Hiletari izan gabe, ortaz gauzak ez aldatzekotan, etorkizuna au da: gureak egin du!!!!

Besterik gabe, Xabier Gereño eta Larresoro'ren lekukotasun oiek naikua eta geiegi dira, euskera dagoan egoera trixtea, tamalgarria eta negargarria ikusteko.

Eta euskaldunak, gure egin ahal guziak euskera dagoan larritasun ortatik salbatzeko batu bearrian... «aspaldian ezagutu dan burrukarik gogorrenian gabiltza», zorioneko H dala edo ez dala, utskeri orrekin.

Ezin sinetsia benetan, euskaldunen BURUGABEKERIA eta ZENTSUGABEKERIA...!!!

Euskeraren eriotza nahi duten denak, ixkin-zulo batetik parrez egongo dira euskaldunen burugabekeri eta zentsugabekeri ori ikusiaz...

Bai, gure bizkarretik PARREZ...!!!!!!

Dr. HERNANDORENA



Pedagogia (2)

Lehengoa, gure pedagogiaren urrats jeneralak aipatzen genituen. Bukatzen genuen, gure kasuan oinarri iraunkor eta sendoak finkatu behar ditugula erraten. Beraz, beste gauzetan bezala, ahalik eta sakonen aritu behar da; eta hau nehorik lujotzat artzen ahal ba leza, gure egin-bidearen erakusteko gai ez dela erranen nuke.

Duela zonbeit urte gure haurrak ez ziren euskaraz eskolatzen; ez eta ahal ere. Pixka bat aintzina berriz, ahalmena sendotzen joan zenean, pedagogia euskaldunen kezka bat bilakatu zen; euskalduntasunak irau-arazi nahi izatea alegia. Orduan, zonbeit guraso beren haurren ezitzeko bideak mugatzen joan ziren, eta horrela gure lehen ikastolak asi.

Bestetan bezala, hastapenetik gauzak ez dira fermuki egiten. Lehenbizi nahia sortzen da, eta gero hura betetzerat doazin abiadurak. Hastapenean euskara irakastea aski

ba zen, gero beste mail baterat gindoazin: ez bakarrik euskara, euskaraz ere beizik. Bainan atzenean hori ere ez da nahikoa; problema ez da hurrek euskaraz ikastea, bizitarako beharrezko direnak euskaraz eman ahal izatea beizik.

Hau da gure gaurko nahi bat, eta zuzen eta bidezkoa dela erran gabe doa. Orai, gauzak ez dira odeietan gertatzen, lurraren gainean beizik; eta kasu bakotxa bere konplexidade guztien barrenean aztertu behar da. Honela, pedagogia baten egiteko, nor, nola, non egiteko den jakin behar da. Gurrean, baitaezbadan kontuan artu behar ditugulakoan artean hauk iduritzen zaizkit:

—Legalidade aldetikako situazio-nea. Gauden bezala gaudeno, gauza bat da nahia, eta bestea hura posible izatea. Hortarako pedagogia-erikiko lege guztiak ezautu behar dira, eta ongi ezautu gero. Jakin behar da zer atera-bide, soluzio-bide, eta abar edukitzen ahal ditugun; eta dituzkegun horiek, ahalik eta gehien balia eta segurta.

—Bestalde, lehenetariko zerbait pedagogiaz ongi jabetzea izanen litzake. Batzutan, atzo artio irakastea zer zen mikorik ere ez zekiena, gaur irakasten paratzen da (edo dute); eta gainerat beste mundutik datorkeanaren itxuraz. Haundiak haundizki eta ttipiak ttipiki; erran nahi da: balio duena bai, bainan bestelakorik ez. Gaurgoiti bereixten joan behar ginakelaren ustekoa naiz. Operazione baten egiteko, sendagillearengana joaten gara, eta horrela behar du; irakasleogan berriz, edonor ditakela iduritzen zaigu. Eta borondate ona onuragarria baldin ba da, denok dakigu ez dela nahikoa.

Non daude gure irakasleen formaziorako beharrezko diren elkar-goak?, non pedagogiaren gaineko teknikoak? Gainerat, beste gauza bat ere kontuan artu behar litzake, alegia gure hain aberatsa den herriko-kultura (kantak, haur-jostaketak, olerkiak, erran-merranak, eta bestaidetik literatuta). Bestenaz, ez zen benetan hemengo ezi-mol-

dea izanen; edo behintzat ez zen izanen, oraindik ere gure esku darduzkagun itur-buruak baliatuaz durguna.

Gaingiroki ba da ere, pedagogian gure iduriko behar haundiko zerbait aipa dezagun: jendetasuna. Zorigaitoz gutartean guttiegi nabaitzen da, eta dudik gabe kasu gehiago eman behar genezaioke.

—Atzenik, ekonomiko arazoa garrantzikoa dela derizkiot. Pedagogiaren oinarrien landatzeko diru asko behar da, eta gainerat diru horren gora-beheraren berri zehatza eduki, finantziatze sakon bat antolatu ahal izateko. Lantegi baten sortzeko nehorik ez litzaioke zozketa bat antolatzea burutik pasatuko. Funts-gabekeri bat idurituko litzaioguke. Jeneralki zer sosakin kondatzen den jakinez eta etorkizunari so eginez inbertitzen da. Ikastolan ere, eta arrazoi haundia-gokin, berdin izan behar luke.

Gaurkoz, aipatzen ahal diren amekaren artean, puntu batzuk ukitu ditugu, eta ukitu bakarrik gainerat; orai bakotxean, behar bezain bat sakonda behar genuke. Pedagogiari, benetako luzapen eta iraupena eman nahi baldin badiokagu, derriro eta ezinbestekoak dirrelako ustean nago.

ANKO SENDOA



Juan dan mendeko euskal gutun bat TAFALLAN

Izkiribu zaharretan gauza gutti kausitzen da euskaraz, eta Nafarroan guttiago. Horrengatik jakintsuenat balio handiko dira, edozein karta zahar edo euskal-izkiribu: zenbat ez dira gure herrixka horietan, Iruñe ingurukotan, erre izanen joan diran mendetan?

1856 garren urteko gutun edo karta bat etorri zaigu eskura, adiskide eta deitura bereko den jabeari esker, Tafallako jaun bateri euskaraz Baionatik izkiriutua: jaun hau, orai Tafallan eta Iruñian bizi direnen aitona zitaken. Garai hortako euskal izkiriburik gutti dugu Nafarroan, eta gainerako Euskalherrian, Franzikoan ezpada.

Izkuntzalarrendako garrantzi eta ardura handiko da, orai mende bat baino geiago zaharra den izkiribua. Alde batetik iketan erabilitako berboa dugu, eta puntuazio gabeko perpausak ere xilatu behar, Baxenafarroako euskara moeta garbi eta herrikoian: linguistik badu langaia. Horretarako, Aldizkari batean argitaratu gogo dugu, batera ortografiarik aldatu gabe.

Guk hemen irakurle arrontendako, oraiko grafian ematen dugu, hitz edo soñurik batera aldatu gabe haatik.

Bayonne le 3 aout 1856.

Mon cher frere: Iskiriutatzen dais kiati bi lerro gure berrien jakin arasteko, osagarri on batekin gituk jin-koari esker / desiratzan dauziegu gauza bera zieri ere / Beras illes kestionen, mintzatu diat e courritier bat Labarte dik izena / erran zautak kintalas 75 libera diru ukan araziko dautala, heldu baita liberako hamaborsos harentzat baduk kintaleko uste diat hamarsos beras orai badakik hemen eta hor bietan zonbat egiten duyen

eta orai baino haren erranak iduri likek gehiago ere eginen duela / beras gisa hortan behar likek zonbeit sos utzi idabaziarentzat (sic) / lehen bai lehen iskiriazak erosten balin baituk zerengatik gure lagun hau kexu baita deusetan es (ez) eseyatzenes / ogia ere ekartzen die zonbaitek. manex magasinakua esperanzatik bihar ehun zaku hogoi eta hamaborz libera zakuko / beras ikusak berziak hari direla ikusten eta gehiago samurtzen duk gu es eseyatzias / juan den ortzegunian hemengo ogiak egin dik hogoi eta hemezortzi libera zakuk zorziatan hogoi libera phisu eta uste diat berogoi libera eginen duyela bihar gu egon ginen ostatu hartako karro zain harek iduri zian ekarri nahi ziela borzna libera heyen etxera eta handik Bayonnala berrogoi sos heldu baita zazpi libera zakua eta iqasouriet (?) jin nahiduk bi idi parerakin hogoi luis nahi dik bi parerentzat orai ikusak / edo ogi edo ile zerbaitarik (sic) hunat behar diuk beras ezdezakala luza arropostuyaren egitia / lehenbiziko piaja (bidaya) egiteras gerostik aisehario gituk ogia orai aise sal ginezakek baginu / gelditzen nuk hire serbitzari fidel bihotzaren erdirik Baptiste Doxandabartz

Hemen eginen dik ogiak, esbada nunbeitik jiten, zernahi dirus arras ogi guti izan duk hemen. Adios.— Estalkian ekartzen du: Sr. Dn. Esteban Doxandabartz. Fabriquante de belas de sebo. Por Pamplona. En Tafalla.

Oharra.—Perpausen eta lerroen separazioneak, erretasunaren karietara, nereak dira: orijinalean dena dago segidan: lapurtar euskarakin nahasia dago baxenabartar euskara. A. APAT-ETXEBARNE